

Aste honetan Batzar Orokorra egin aurretik

**EROSKI-K 2.000 KONTSUMITZAILETIK GORA
ELKARTU DITU BAZKIDEAREN EGUNA OSPATZEKO**

- **EROSKI kooperatibak milioi bat Kontsumitzaile Bazkide baino gehiago batu ditu EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian**
- **EROSKI osasunarekin eta iraunkortasunarekin hartu dituen konpromiso berriak izan dira bazkideentzako hitzaldi informatiboetako gairik esanguratsuenak**
- **Bertaratuek lagundu dute gaitz neurodegeneratiboan alde dirua biltzen; izan ere, kooperatibak eta The Walk On Project fundazioak hitzarmen bat sinatu dute aurre horretan**

Elorrio, 2018ko ekainaren 18a.- [EROSKI](#)k "*Bazkidearen egun handia*" ospatuko du egun hauetan Bilbon eta Donostian. Deialdi hori irekita dago kooperatibaren EAEko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako milioi bat Bezero Bazkideentzat; horietatik 774.000 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dira.

Kooperatibak aste honetan egingo duen Batzar Nagusiaren aurretik, EROSKI beste bilkura batzuk egin ditu egun hauetan Kontsumitzaile Bazkideekin, eta 2.000 lagunetik gora azaldu dira. Donostian eta Bilbon izan dira bilkura horiek, eta haietan, Kontsumitzaile Bazkideek bertatik bertara jakin dute joan den urtean zer-nolako eboluzioa izan duten kooperatibak eta haren proiektu nagusiek.

EROSKI osasunarekin eta iraunkortasunarekin hartutako konpromiso berriak izan dira prestakizun bilkura horietako gai nagusiak; izan ere, duela 50 urte sortu zenean kontsumitzaileekin eta gizartearekin hartutako konpromiso historikoak berritu ditu, eta, orain, kooperatiba den aldetik bere izaera eta xede kooperatiboa leial betez, bizi kalitatea eta iraunkortasuna hobetzen lagunduko du. 7.500 lagunek baino gehiagok lagundu dute konpromiso horiek eratzen, denak ere bazkideak, langileak, bezeroak eta interes taldeak.

Honela labor daitezke osasunaren eta iraunkortasunaren alde hartu dituen hamar konpromiso berriak: elikadura arloko segurtasunaren alde egitea, elikadura orekatua sustatzea, haurren gizentasunari aurrea hartzea, nutrizio arloko beharrian espezifikoei arreta jartzea, arduraz kontsumitzen laguntzea, tokiko produktu gehiago eskaintzea, ongi eta merke jateko aukera ematea, garbitasunez eta gardentasunez jokatzeko, langile gisa geure burua zaintzea eta bizimodu osasungarriagoa bultzatzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Gainera, bertaratuek dirua biltzen lagundu dute gaitz neurodegeneratiboen ikerketarako; izan ere, kooperatibak eta The Walk On Project fundazioak [lankidetzaz hitzarmen bat](#) sinatu dute aurre horretan.

Preskizun bilkurez gain, EROSKI, ekainean, prestakuntza eta informazio jarduera batzuk antolatu ditu bere dendetan kontsumitzaile bazkideentzat, kontsumo kooperatibak berea duen alorrean, hiru gai hauen inguruan: elikadura orekatua, bizimodu osasungarria eta ingurumen iraunkortasuna.

Gobernu korporatiboa EROSKI n

Kontsumitzaile Bazkideek kooperatibaren bizimoduan parte hartzen dute hiru Batzorde Kontsumeristaren bitartez, zertarako eta kooperatibaren jarduera hobetzeko beren ideiekin eta iradokizunekin.

EROSKI n, gobernu korporatiboa era paritarioan osatzen dute kooperatibako Bazkide Langileek eta Bazkide Kontsumitzaileek. Hala, bai Batzar Nagusia —komunitate bakoitzeko 250 ordezkariarekin— bai Kontseilu Errektorea —hamabi kidez osatua, modu paritario bereberan— demokratikoki aukeratzen dituzte, eta karguak hartzen dituztenek ez dute ordainsaririk jasotzen, gobernu korporatiboaren gainerako organoetako kideek jasotzen ez duten bezalaxe, esan nahi baita Kontseilu Soziala, Kontseilu Kontsumerista, Baliabideen Kontseilua eta Zaintza Kontseilua.

EROSKI n, erabakirik garrantzitsuenak kooperatibaren ordezkariak foroetan eztabaidatuta hartzen dira, zenbaitetan barne kontsulta zabalak egin eta gero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)